



FSEPS

fseps.eu

3. Albistegia

2020-ko uztaila

Dena prest abian jartzeko...

...hauxe zen aurreko albistegiko izenburua. Hala ere, aste gutxi batzuk ondoren, Covid Pandemia heldu zen Europara eta hainbat hilabeteetan zehar FSEPS proiektuko ekintza asko geldi arazi zituen, programa abian jartzeko genituen planak bertan behera geratuz.

“Gure Unea” programa abian jarri behar genuen abegi-etxeetako langile eta familientzako garai latz eta zailak izan dira azken hilabeteok. Hori bai, programa aurrera eraman ez izanak, bestaldetik, proiektuko beste lan batzuei arreta eskaintzea ahalmenu digu. Baina orain, aurreko hilabeteetan zehar geldi izan ditugun ekintzak, gutxinaka-gutxinaka burutzen hasi gara. Nafarroako Unibertsitateko gure kideak izan dira hasten lehenak.



Ekainaren bukaeran “hezitzaileen formakuntza” ikastaroko lehenengo saioa eman zen Nafarroan – beharrezkoak ziren neurri zorrotzak jarraituz, bai distantziak mantenduz nola maskarak erabiliz.

Bizi dugun egoera berezi hau dela eta, formakuntza modu misto batean eman zen: aurrez-aurrekoa eta online uztartuz. 20 pertsonen parte hartu zuten formakuntzan, horietarik gehienek Nafarroako



abegi-etxeetan aritzen diren profesionalak izan ziren, baina horretaz gain, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (Nafarroako Gobernuak) eta Iruñako Udaleko Emakumeentzako Udal Zerbitzuko ordezkariak ere parte hartu zuten formakuntzan.

Formakuntzak bi aste beranduago izan zuen jarraipena. Saio bat uztailaren 2an, Iruñako udaleko “DUO”-ko (“Date una oportunidad / “Emaiozu zure buruari aukera bat”) profesionalekin. Beste saioa, uztailaren 10an izan zen Nafarroako Gobernuak den abegi-




etxean. Bigarren saio honetan, parte hartzaileak programa abegi etxeetako eta bertan bizi diren familien ezaugarrietara egokitzen aritu ziren batez ere.

“Gure Unea” programa abian da Nafarroan

Programaren frogatzea Nafarroan hasi zen aurreko uztailaren 17an eta hiru asteetan zehar luzatuko da. Denbora honetan “Gure Unea” programa frogatuko dute abegi-etxeetan bizi diren ama eta haien 3 eta 11 urte bitarteko umeekin. Programa honetako ekintzen helburu nagusiak, familiei bizi diren inguru berriak integratzen eta familia barruko harremanak hobetzen laguntzea dira.



Frogatze fase hau gainerako herrialdeetan - Italia, Erresuma Batua, Errumania eta Bulgarian – pandemia dela eta atzeratu da, baina proiektuan parte hartzen ari diren kideak baikor dira eta irailen programa haien herrialdetan frogatzen hasiko direlakoan daude. Espero dugu birusak gure egitasmoak betetzen uztea!



Atzeratuta, baina ez utzia!

FSEPS taldeak martxoa eta ekaina bitartean “Gure Unea” programa hobetzeko izugarriko ahalegina egin du. Hasieran garatutako hainbat ekintza moldatzen dihardun du eta testuinguru ezberdinetara hobe egokitu zitezten, hainbat ekintza proposamen eraberritu ditu.

Formakuntzarako materiala eta “Gure Unea” programa proiektuaren [webgunean](#) eskura egonen da. Genero indarkeriaren alorrean aritzen diren profesionalentzako edo gai honetan interesa duen ororentzako oso interesgarria izan daitekeen material aunitz, online gordailu batean izanen da eskuragai. Lehenengo frogatze esperientzien inguruan eta “Gure Unea” programa aplikatzeko moduan oinarritutako online topaketa bat ere aurreikusia dago 2020-ko irailerako.

Gure [webgunean](#) sar zaitez, proiektuaren berri zuzena izan nahi baduzu!

Gure **facebook** orrialdean ere jarrai gaitzakezu (**esteka:** <https://www.facebook.com/FSEPS-Families-Social-Exclusion-and-Places-of-Safety-518716175313044/>)



KIDEAK



Birmingham City University (UK)

bcu.ac.uk



die Berater (AT)

dieberater.com

bridgestoeurope.com



Lamoro (IT)

lamoro.it



CPIP (RO)

cPIP.ro



Universidad Publica de Navarra (ES)

unavarra.es



Staffordshire Women's Aid (UK)

staffordshirewomensaid.org



AVODP (BG)



The content of this publication represents the views of the author and is his/her sole responsibility. The European Commission does not accept any responsibility for use that may be made of the information it contains.

Co-funded by the Rights, Equality and Citizenship (REC) Programme of the European Union



Co-funded by the Rights, Equality and Citizenship (REC) Programme of the European Union